

Baketik urteko gogoeta, proposamen eta dibulgazio ekimena

# R

bizikidetza eta adiskidetze  
kultura berri baterako

# 2019

# indargunea

# Giza Eskubideak

Orientatzeko hiru irizpide

# baketik

2019ko otsaila

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA





bizikidetzeta eta adiskidetzeta  
kultura berri baterako

2019  
indargunea

## Aurkezpena

2011ko urtarrilean Baketik-ek «Adiskidetzarako Indarguneak» ekimena jarri zuen abian. Urtearen hasiera honetan, geure gizartearen bizikidetzeta eta adiskidetzeta kultura berria bultzatzea helburu duen agiria aurkeztea da ekimenaren xedea.

Lehenengo agiriaren izenburua honakoa izan zen: «Adiskidetzeta-prozesu bat modu partekatuan kokatzeko eta bultzatzeko oinarri-proposamena». Eremu desberdinetara (politika, udal maila, hezkuntza, elkarteak eta eguneroko bizitza) zuzenduak zeuden «Bost proposamen zehatz» izenburua zeraman 2012ko Indarguneak. 2013koak aliantza estrategikoa proposatzen zuen udalen eta ikastetxeen artean herri mailan bizikidetzeta bultzatzeko. 2014ko Indarguneak humanizazioa defendatzen zuen sufrimendu pertsonalak eta kolektiboak murrizteko eta giza harremanak zein sozialak eta politikoak berreraikitzeke elkargune eraikitzaile gisa. 2015eko Indarguneak bake prozesua sendotzeko gizarteak eskain dezakeen funtsezko energiaren aldeko apustua egin zuen. 2016ko Indarguneak sufrimendura gerturatzearen inguruko hausnarketa eta gizarte-ekintza bultzatu nahi zituen, gizatasunaren bidean pausoak ematen joateko helburuarekin. Azkenik, 2017an, Indarguneak elkartasunaren inguruan hausnartu nahi izan zuen, sufrimendu bidegabeen eta giza duintasunaren balioaren gainbehera orokorraren testuinguruan, horiekiko elkartasuna eta konpromiso pertsonal nahiz kolektiboa ezinbesteko bihurtzen baita.

2018. urtean, "Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala" egin zeneko 70. urteurrena ospatu zen, eta haren egoerari, kontraesanei eta potentzialtasunari buruzko gogoeta egitea izan zen indargunearen muina. Gogoeta Giza Eskubideei buruzko hitzaldi ziklo batera eraman zen. Zikloa Baketik-ek eta San Telmo Museoa antolatu zuten, elkarrekin, urte guztian zehar. Hori horrela, **2019ko Indarguneak** zubi-lana egin nahi du 2018ko Indargunearen eta hitzaldietan ikasi genuenaren artean, helburu garbi batekin: gaur egun Giza Eskubideen egoerari, kontraesanei eta potentzialtasunari buruzko zenbait konklusio ateratzea.



bizikidetzeta eta adiskidetzeta  
kultura berri baterako

2019  
indargunea

## Argi-itzalen irakaspenak

2018ko Indargunean giza eskubideen planteamenduari eta garapenari buruzko hiru kontraesan edo paradoxa identifikatu genituen: 1) Besterenezinak dira, baina bermatzen zailak, 2) Jende gehienak onartzen ditu, baina haien erabilera eta abusua egiten da; eta 3) Berezko balioa dute, baina, praktikara eramatean, beste esanahi batzuekin lotu behar ditugu.

Baketikek 2018an antolatutako hitzaldietan, hiru kontraesan horiei heldu genien nolabait ere. Ondotik, kontraesan edo paradoxa horiek lantzeko orientabide izan daitezkeen hiru ikaskuntza edo irizpide aurkeztuko ditugu, giza eskubideen aldeko lan egokiagoa egiten laguntzen dutelakoan:

*Haiek bermatzeko zailtasunaren aurrean...*

### 1 | Erantzukizuna

Giza eskubideak betetzea gobernuen eta nazioarteko erakundeen kontua ez ezik gizaki guztiena ere bada. Gizon-emakume guztiok arduratu behar dugu nolabait, bakoitzak ahal duena eginez, giza eskubideak bermatu daitezzen. Gizakiok elkarri lotuak gaude, eta gure ekintzek besteengan dute eragina, eragin eraikitzailea edo sunsitzzailea, gure jokatzeko moduaren arabera. Hori horrela delarik, denok erantzukizunez jokatzu gero, eta giza eskubideak denon ardura indibidual eta kolektiboa dela aintzat hartuz, aukera handiagoa izango da bete eta bermatu daitezzen.

Pilar del Río –kazetaria eta Saramago Fundazioaren lehendakaria, eta Pertsonen Eskubide eta Betebeharren Gutunaren bultzatzailea– ikuspegi horren defendatzailea da, eta erantzukizunaren etikaren barrenean kokatzen du:



bizikidetzeta eta adiskidetzeta  
kultura berri baterako

2019  
indargunea

“Pertsona askok uste dute beren eskubideek ez dutela loturarik betebeharrekin. Badirudi pertsonak eskubideak eskuratu dituztela beren hazkuntzarako eta gozamenerako eskuratu dituztela, nork bere buruarentzat, bere ingurukoekiko, ingurunearekiko edo estatuiekiko inongo ardurarik hartu beharrik ez balego bezala. Baina beharrezkoa da eskubideez ari garenean, elkarrekiko ardura batetik aritzea”.

Argitu beharrezkoa da gizaki guztiok ez dugula erantzukizun bera. Erantzukizunak, bestalde, honakoa dakar berekin: beste aldera ez begiratzea gobernu batek inpunitatez eta sistematikoki giza eskubideak urratzen dituenean. Ezinbestekoa da kargu hartzea: gobernuari eta erakundeei eskatzea, eta presio eta bultzatza egitea ere bada erantzukizuna nork bere gain hartzeko modua. Dena dela, irtenbiderik gabeko egoerez jabetzeak frustrazioa eta ezintasun sentimendua ere pitz ditzake. Nola zaindu giza duintasuna halakoetan?

Badira esperientziak, erakusten digutenak batzuek nola hartu duten beren gain giza duintasuna errespetarazteko erantzukizuna eta ahalmena, giza eskubideen urraketa larriak sufritzen dituzten populazioetan. Hala da, adibidez, Erdialdeko Amerikan eta Latinoamerikan indarkeria sexuala nozitu duten emakume komunitate batzuetan. Horrela, Amandine Fulchiron izeneko ekintzaileak esaten digunez: indarkeria sexuala bizitu eta gero inpunitate sozial eta judiziala jasan behar izateak beren legeak sortzera bultzatu ditu emakumeak berak: “Emakumeen legea”. Estatuak sinesgarritasuna galduta, bertako prozesu komunitarioak abian hartzen hasi ziren, eta bide sozial eta politikoen alde egiten. Ordain eta ahalduntze prozesua izan da emaitza. Laburbilduz, duintasuna berreskuratu dute.

Bada gauza bat, ardura eta erantzukizunaren parte garrantzitsua dena: ongi informaturik egon behar dugu. Eva Suárez-Llanosek –Espainiako Amnistia Internacionaleko zuzendaria– ohartarazten digu desinformazioa dagoela eta estrategia batzuk badaudela zenbait kolektibo gaitzesgarri gisa agerrarazteko. Hori guztia ikusita, ezinbestekoa da informazio egokia bilatzea, kritikoak izateko gaitasunari eustea eta mezu egiazko eta eraikitzaileak zabaltzea: “egin dezagun lan honen alde, defenda ditzagun eskubideak geure inguru hurbilenean, eman ditzagun ezagutzera; guztiok beharko ditugu eta”, zioen Suárez-Llanosek. Giza eskubideen defendatzaileak – emakumeak bereziki– uneoro daude mehatxaturik, baina bozgorailu dira hain gutxi ezagutarazten diren urraketa hauen berri emateko. Haiei aditzea, ahotsa eta sostengua ematea da denok gure erantzukizunaren barrenean egin dezakegun apurretako bat.



bizikidetzeta eta adiskidetzeta  
kultura berri baterako

2019  
indargunea

*Bidegabekeria estrukturalen aurrean...*

## 2 | Nork bere buruari begiratu behar, baita urrutirago ere

Munduan giza eskubideak errespetatuz gero, berdintasuna egiazkoa izango da, eta aberastasuna hobeki banatua egongo da. Giza eskubideen alde lan eginez gero, hori da etorkizuna: duintasunezko bizitza.

Giza eskubideen urraketa askok injustizia estrukturalak dituzte iturri, edo injustizia horien erruz biderkatzen dira: pobrezia, boterearen abusua, kolonialismoa... Horregatik, giza eskubideak asmo oneko deklarazio hutsa izan ez dadin, errealitatean errotu gabeko adierazpen izan ez dadin, egituren azterketari beha egin behar da lana, ekintza.

Azterketa honetan, pribilegiozko lekuan ikus dezakegu geure burua. Halaxe gertatzen zaie giza eskubideen alde lanean ari diren talde eta entitate europar askori, eta gu haietako bat gara. Gure taldeak, nagusiki, arraza zuriko pertsonak osatuak daude, ikasketak eta dirubide erosoak dugunok. Gure sentsibilitatea eta kezka gorabehera, gerta liteke gure ekintzetako batzuk, ohartuki edo oharkabean, gure inguruan edo mundu globalizatu honetako beste bazter batzuetan giza eskubideen urraketen bultzatzaile izatea. Ongi jakinda ezin garela % 100ean koherenteak izan eta ez ditugula ezabatu goizetik gauera gure pribilegioak, ohar gaitzen, bederen, nolako tokia dugun egituretan eta jar ditzagun gure pribilegioak giza eskubideen alde (adibidez, arrazengatik bazterturik, pobreturik edo isilarazirik dauden taldeei tokia eta ahotsa emanez...).

Azterketa estruktural hau lagungarria izan dakiguke ohar gaitzen besteen giza eskubideen alde lan egiteak ez dakarrela inola ere norberaren eskubideak galtzea (gehienez ere, pribilegioak galtzen dira). Eta, horri dagokionez, eskubideen urraketa batek sekula ez du justifikatzen beste eskubide batzuen urraketa. Giza eskubideak gizaki orori dagozkie, *guzti-guztiei* (ez bakarrik gutarrei edo "zintzoei").



bizikidetzeta eta adiskidetzeta  
kultura berri baterako

2019  
indargunea

*Instrumentalizazioaren mehatxuaren aurrean...*

### 3 | Esperantza

2018ko indargunean genionez, giza eskubideen mezua mundu globalizatuan zabaltzea lagungarria izan da hizkera erreferentzial bat sortzeko, bai balioei bai araei dagokienez, eta, aldi berean, instrumentalizazio politikorako erabiltzen da, estatuak eta hedabideaz haiez baliatzen baitira.

Baketikek aurten antolatu dituen hitzaldi guztietan, agerian gelditu da instrumentalizazioaren mehatxua txikia dela oraindik ere baduen eta izango duen indarraren aldean. Giza eskubideak defendatzea, hortaz, etikoa da, baliagarria, beharrezkoa.

1948an haien aldarrikapena egin zenez geroztik, asko egin dugu aurrera, eta baliagarria da handik 70 urtera ere. Beraz, esan genezake arrazoi asko ditugula inozo ez baizik eta baikor izateko. Javier de Lucasek honela zioen: "Gure garaiotan, baikortasuna betebeharrak moral bat da. Gauzak hobetzeko baikortasun ez inozo bat".

Baikortasun horrek etengabe giza eskubideen alde egitera garamatza, eta hezkuntzan indar berezia egitera. Eskolak eraldatzailea izan behar du hezkuntzan, giza eskubideei dagokienez. Bermatu beharra dago arlo horretan ume guztiei iritsiko zaiela mezua, edozein delarik ere jatorria eta etxeko kultura. Giza eskubideen gaineko hezkuntza egin behar da, ume oro haiez jabetu dadin, haiek onartu eta errespetatu ditzan, eta barneratu ditzan, bestetik, oinarritzko kontzeptuak: duintasuna, askatasuna eta berdintasuna. Denon erantzukizunean oinarritutako hezkuntza: gizon-emakume guztion duintasuna eta planeta zaindu beharra dago, ikuspegi kritiko eta autokritikoarekin.

Pilar del Ríok dioen bezala:

**"Herritarrak gara munduko potentziarik handiena, nahiz eta sistema etengabe saiatzen den gure arretan beste nonbait jarrarazten gure potentzia hori erabil ez dezagun"**